



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2022ko azaroaren 15ekoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren irismen-dokumentua formulatzeko, zehazki, "MA.01 Antzita" eta "AY.03 Pintore" hirigintza-eremuei dagokiena, bai eta Erregenea inguruko lursail bat birsailkatzeko ere, sistema orokorra handitzeko.

EGITATEZKO AURREKARIAK

2022ko irailaren 23an, Donostiako Udalak eskaera egin zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua emateko, "MA.01 Antzita" eta "AY.03 Pintore" hirigintza-eremuetarako, bai eta Erregenea inguruko lursail bat birsailkatzeko ere, sistema orokorra handitzeko helburuz. Horretarako bidea badago, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Donostiako Udalarari ere jakinarazi zitzaion izapide-prozesuaren hasiera.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakarrenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketei ere, legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu irismen-dokumentuaren hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziatzko dokumentuaren edukiaren eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraiki, espedienteko txostenak aztertu eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik, “MA.01 Antzita” eta “AY.03 Pintore” hirigintza-eremuetarako, bai eta Erregenea inguruko lursail bat birsailkatzeko, sistema orokorra handitze aldera (aurrerantzean, Plana), honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Planak honako hirigintza-eremuei eragingo die: Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “MA.01 Antzita” (Martutene), “AY.03 Pintore” (Ayete) eta “AO.12 Erregenea” (Antigua-Ondarreta).

I A.U. «MA.01 Antzita» eremuak 87.151,00 m²-ko azalera du, eta haren kalifikazio globala «A.30 – Eraikuntza irekiko bizitegia» da. Planak, eremu horretan, HAPOk baimendutako sabai eraikigarria mantentzetik abiatuta – 77.000,00 m² (t) –, bizitegi-eraikigarritasuna handitzea aurreikusten du: egungo 40.000,00 m² (t) -tik 72.000,00 m² (t) -ra, eta, korrelatiboki, hirugarren sektoreko erabileretara bideratutako eraikigarritasuna murriztea, egungo 37.000,00 m² (t) -tik 5.000,00 m² (t) -ra. Horretarako, eremuko arau partikular berria ezartzen da, eta horren antolamendu xehatua geroko Hiri Antolamenduko Plan Berezi baten bidez garatu beharko da.

Bestalde, “AY.03.Pintore” eremuak 48.731,00 m²-ko azalera du eta “A.40 – Garapen Txikiko Bizitegi Kalifikazioa”. Mugaketaren barruan sartzen dira Belén ikastetxeak hartu zuen lursaila eta ikastetxean irakaskuntza-jarduerak eman zituzten erlijiosoen egoitza (María Inmaculada de Agenen Alaben Kongregazioa – Marianistak). Aldapeta galtzadan daude, 23.-25. zenbakietan, eta 4.186,78 m²-ko azalera du; kalifikazio xehatua: “b.20 Tertiarioa”. Planak proposatzen du, Villa Belén lurzatian, hirugarren sektoreko kalifikaziotik (gaur egun ez da erabiltzen) bizitegi-kalifikaziora aldatzea.

Horretarako, lurzatian bi bizitegi-bloke antolatu dira, sestra gaineko gehieneko sabai eraikigarri hau izango duena: 4.150,00 m²/(t). Sestra azpiko eraikigarritasunari dagokionez (garajeak eta beste erabilera osagarri batzuk), 4.800,00 m²/(t) -ko sabai eraikigarria aurreikusten da. Egingo den eraikinaren profila sotoko bi

solairu izango ditu (zati batean hiru solairu ere jar litezke) + BS + 3 PA + atiko atzeraemana (V/III). Era berean, lurzatiaren aurrealde osoan 3,00 metro zabaleko espaloia lortzea aurreikusten da (300,00 m² inguru okupatuz), gaur egun etenda dagoen oinezkoentzako espaloiak jarraitu ahal izateko.

“AO.12 Erregenea” izeneko eremuari dagokionez, haren egungo azalera (46.514 m²) handituko da 830,00 m²-ko azalera duen lursail bat gehituta. Gaur egun, babes bereziko landa-lurzoru gisa sailkatuta dago, eta hiri-lurzoru gisa sailkatuta egongo da aurrerantzean, eta Espazio Librean Sistema Orokorren kalifikazioa (F.10 eremua) izango du, gaur egun dagoena handitu eta hirigintza-eremu horren zati bihurtuz.

Erregenean egitekoa den hirugarren aldaketa hori Villa Belénean aurreikusitako garapenari lotuta dago; izan ere, lurzatiak azalera txikia duenez, materialki ezinezkoa da araudiak eskatutako espazio libreen zuzkidura orokorra inon kokatzea.

Villa Belenerako bi aukera eta Antzitarako aukera bat proposatu dira, indarrean dagoen plangintzari dagokion 0 alternatibaz gain.

Horrela, Antzita eremurako, 0 alternatiba bat letorke 2016ko apirilaren 24an behin betiko onartutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziak jasotzen duen antolamenduarekin, eta 1. alternatiba Planak garatutako horixe da.

Pintore eremuko Villa Belén lurzatiari dagokionez, 0 alternatiba erakusten da, lurzatiaren hirugarren sektoreko erabilerrari eustea ekarriko duena, eta beste bi antolamendu-aukera, lurzati bizitegi gisa erabiltzea planteatzen dutenak, hiru etxebizitza-bloke jarrita (1. aukera) edo bi eraikin (2. aukera). Azkenik, 2. aukera garatuko du planak, alegia, bizitegi-bloke antolatuko ditu eremu horretan.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketak-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabilerraren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Funtsezko prozesu ekologikoek eta oinarriko bizi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
- e) Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna ere.

- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- i) Sustatzea energia aurrezte, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Planaren eremua hauxe da: "MA.01 Antzita" (Martutene); Aieteko "AY.03 Pintore" eremuko "Villa Belén" lurzattia; eta AO.12 Erregenea eremua (El Antiguo – Ondarreta).

Martuteneko "Antzita MA.01" eremuak, 87.151,00 m²-ko azalera hartzen du hiri-lurzoruan, eta ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du, eremua bitan banatuz, GI-40 errepideak eta harekin lotutako bide-loturek. Gaur egun, jarduera ekonomikoetarako pabiloien zati bat hartzen du. Gainera, Urumea ibaitik hurbil dagoen lursailean, Arraun Lagunak arraun-klubaren kirol-instalazioak daude. Hauek ditu mugak: iparraldean, Martuteneko espetxea eta Txomin Enea bizitegi-auzoa; mendebaldean, Renferen trenbidea; ekialdean, Urumea ibaia; eta hegoaldean, Martutene auzoko bizitegi-eremuak.

"AY.03 Pintore" eremuko Villa Belén partzela hiri-lurzoria da: 4.186,78 m²-ko azalera du. Ayete auzoan kokatuta dago, bizitegi-garapenen artean; zehazki, Aldapeta galtzadako 23.-25. lurzatiari dagokio. Gaur egun, bere garaian Belén ikastetxeak eta ikastetxean eskolak ematen zituzten erlijiosoek egoitzak hartu zituzten eraikinek okupatzen dute lursaila.

Hirugarren azterketa-eremua lurzoru urbanizaezineko 830,00 m²-ko azalera bat da, "D.10" kalifikazioa duena (babes bereziko landa-lurzoria). Hiri-lurzoruko AO.12 Erregenea (46.514 m²) eremuan sartzen da, Espazio Libreen Sistema Orokorreko kalifikazioa (F.10 eremua) izango du. Eremuak landaredi erruderal eta nitrofiloa eta hostozabalen zuhaitzi bat ditu.

Eremuen antropizazioa dela eta, eremu horiek, oro har, ez dute natura-elementu garrantzitsurik, Urumea ibaia (Antzita eremuaren ekialdetik igarotzen da) eta Antzitan eta Erregenean dauden baso-masak izan ezik. Eremu horietako bat ere ez da naturagune babestu, intereseko beste naturagune, interes geologikoko leku, EAEko Korridore Ekologikoen Sareko edo Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko eremu babestuen erregistroko inongo elementu. Gainera, aztertutako eremuetan identifikatu kultura-ondareko elementu katalogaturik ere ez da identifikatu.

Jarraian, azterketa-eremu bakoitzaren ingurunearen ezaugarri nagusiak deskribatzen dira:

Antzita:

- Urumea ibaia, tarte horretan trantsizioko Urumea ur-masarekin bat datorrena, eremuaren ekialdeko mugatik igarotzen da, eta eremuaren azalera txiki batera iristen da ibilgua eta, beraz, Itsaso eta Lehorraren arteko Jabari Publikoa.
- Lurpeko hidrologiari dagokionez, eremua Andoain-Oiartzun ur-masaren Oiartzun Kuarternarioko sektorean dago, eta interes hidrogeologikoko kokaleku gisa identifikatzen da.
- Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, eremuan eremu urbanizatuak landaredi erruderal-nitrofiloa da nagusi. Hala ere, Urumea ibaiaren ertzen ondoan, landaredi erruderalak zuhaitz-landarediari bide ematen dio. Jarduketa-eremuan nabarmendu daitezkeen beste

landaredi-orbanak GI-40 bidearen inguruan daude. Errepide hori baso misto kantauriarreko zuhaitz-formazioz inguratuta dago, eta horien ondoan belardi batzuk daude. Eremuan zenbait espezie aloktono inbaditzaile identifikatu dira, hala nola *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Baccharis halimifolia*, *Spartina patens*, *Robinia pseudoacacia* eta *Fallopia japonica*.

- la eremu osoak 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua du, eta gutxiago bada ere, baita 500 urtekoa. Era berean, eremuaren azalera handi bat Urumearen lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan dago. Tarte horretan, Urumea ibaia ES017-GIP-URU-01 Urumea 2 UAPGGaren barruan dago.
- Eremuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioko bost lurzati identifikatu dira, guztiak ere industria-izaerakoak eta kode hauekin: 20069-00186, 20069-00187, 20069-00188, 20069-00189, 20069-00185.
- Bestelako arriskuei dagokionez, eremuak oso kalteberatasun txikia du azpian dituen akuiferoen kutsadurari dagokionez.
- Zaratari dagokionez, eremuaren inguruan identifikatutako zarata-iturri nagusiak GI-40, GI-41 errepideei, Antzita pasealekuari eta Martutene pasealekuko lotuneetako ibilgailuen trafikoari dagozkio, bai eta Renfe lineako eta Abiadura Handiko Trenaren (AHT-TAV) trenbideko trafikoari ere. Eremuaren zati handi bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideen eragin akustikoko eremuaren eta Renfeko trenbide-linearen babes-eremuaren barruan dago. Udalerriko zarata-maparen arabera, eremuak bizitegi-erabilerako lurzoruen sailkapena du.
- Egindako azterlan akustikoaren arabera (bertan egunez, arratsaldez eta gauez, gaur egungo egoeran eta etorkizunean 20 urteko epean eremuan dauden soinu-mailak aztertzen dira), emaitzek erakusten dute ez direla betetzen Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak bizitegi-erabilerako nagusi duten eremuetarako ezarritako Kalitate Akustikoaren Helburuak.

Pintore eremuko Villa Belén lurzatia

- Ez eremuan ez ingurune hurbilean ez dago ur-ibilgurik identifikatuta. Lursaila Kontxako badiatik 100 bat metrora dago.
- Urpeko hidrologiari dagokionez, eremua Zumaia-Iruneko lurpeko ur-masaren gainean dago. Lurzatiaren ipar-ekialdeko muturra interes hidrogeologikoko kokaleku gisa identifikatzen da.
- Eremuak gaur egun duen artifizializazio-mailari dagokionez, ez du landaredi askorik, edo espezie ornamentalak besterik ez dira.
- Jarduketaren xede den lurzatian kultura-ondareko elementurik identifikatzen ez bada ere, haren mendebaldeko mugan, Pintore eremuaren barruan, Eva Enea eraikina dago, eraikitako ondarea (Kultura Ondasun gisa katalogatua, Monumentu kategorian, 2017-05-03ko EHAAn).
- Ingurumen-arriskuei dagokionez, lurzatia ez dator bat uholde-arriskuko eremuekin, ezta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin ere. Gainera, akuiferoen kutsadura-arriskua oso txikia da.
- Zaratari dagokionez, lurzatiaren inguruko zarata-foku nagusia hiri-zirkulazioa da, batez ere Aldapeta galtzadakoa eta Beloka pasealekukoa. Aurkeztutako azterketa akustikoaren arabera, aztertutako lurzatian ondo betetzen dira bizitegi-eremuetarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak, bai kanpoko zaratari dagozkionak, bai fatxadari dagozkionak, aztertutako hiru aldietan (eguna, arratsaldea, gaua), bai egungo egoeran, bai etorkizunean.

Erregenea

- Ez eremuan ez ingurune hurbilean ez dago ur-ibilgurik identifikatuta.
- Urpeko hidrologiari dagokionez, eremua Zumaia-Iruneko lurpeko ur-masaren gainean dago. Sektorea osorik interes hidrogeologikoko leku baten gainean dago.
- Eremua, Mendiozorrotzeko gainerako ingurunearekin batera, bat dator hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) banaketa-eremu naturalarekin, Hegoaldeko Zuhaitz-igelaren (*Hyla*

meridionalis) Kudeaketa Plana onartu eta hura babesteko arau osagarriak ematen dituen 1999ko azaroaren 10eko Foru Aginduaren arabera (GAO, 1999-11-18).

- Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, landaredia nagusiki hostozabalek eta landaredi erruderal nitrofiloko eremuak osatzen dute, eta ingurune antropikoak dira.
- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, eremua basogintza-kategoriari dagokio.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremua ez dator bat uholde-arriskuko eremuarekin, ezta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin ere. Akuiferoak kutsatzeko arrisku gutxi dago.

Plana garatzeko proposamenek partzialki eraikitako hiri-lurzoruari eragiten diote, Erregeneako 830 m²-ak izan ezik, espazio libreetan integratzen baitira horiek, lurzoru berririk okupatzea eragin gabe. Planaren jarduketek, a priori, ez dute sortuko eragin nabarmen desberdinik, tamainari, izaerari eta ezaugarriari dagokienez, egungo plangintzatik eratorritakoekin alderatuta.

Hala ere, Antzita hirigintza-eremuak hainbat baldintzatzaile eta muga ditu Plana garatzeko. Lehen azaldu den bezala, eremu ia osoa urpean gera daiteke 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboretarako, eta zati handi bat lehentasunezko fluxu-eremuan dago. Gainera, Urumea ibaitik hurbilen dagoen azalera Itsas-lehorreko Jabari Publikoaren eta haren Babeseko Zortasun Eremuaren barruan geratzen da. Hasierako dokumentu estrategikoak adierazten du azterketa hidrauliko bat sartuko dela, plana garatzeko ondorengo faseetan.

Horrez gain, kontuan hartu behar da Antzita eremuan agian kutsatuta dauden lurzoruen gaineko eragina.

Zaratari dagokionez, aurkeztutako azterlan akustikoak erakusten du Antzita eremuan, etorkizunean kanpoko zaratari dagokionez, ez direla betetzen bizitegi-eremuetarako kalitate akustikoko helburuak aztertutako, hiru aldietako inongtoan (eguna, arratsaldea, gaua). Azterlanak oztopo akustiko batzuk jartzea aztertzen du, eta lortutako emaitzekiko 0-6dB (A) arteko hobekuntza lortuko lukeena, oztopo akustikorik gabe. Emaitza horiek ez dira nahikoak kanpoko ingurunerako Kalitate Akustikoko Helburuak lortzeko, ez egungo egoeran, ez 20 urte barru, ez egunez ez gauez; arratsalde besterik ez dira gelditzen gainditzeke helburuok; hala ere, partzela osoan 2 metroko altueran hobekuntza akustikoa jartzea erabakigarria da, bide mugakideetatik hurbilen dauden eremuak eguneko eta gaueko muga-balioa pixka bat gaindituta geratuko lirateke.

Obra-faseari dagokionez, bi eremuetan dauden eraikinak eraistea eta berriak eraikitzea kontuan hartuta, honako hauek izango dira lotutako inpaktu nagusiak: hondakinak eta indusketa-soberakinak sortuko dira, istripuzko isurketak egiteko eta lurpeko urak kutsatzeko arriskua izango da, lur-mugimenduetan uren kalitatea murriztuko da, emisio atmosferikoek eta akustikoek herritarrei eragozpenak eragingo dizkie, etab.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Planaren eremuan ez da atzeman jarduketak kokatzeko desegoki izango den eremurik, betiere aplikagarri den ingurumen-araudia errespetatzen bada, eta, bereziki, honako gai hauei dagokiena: sistema hidrologikoa eta jabari publiko hidraulikoa zaintzea, uholde-arriskua, lurzoruen kutsadura, kutsadura akustikoa, naturaren kontserbazioa, intereseko landaredia eta fauna eta espezie aloktono inbaditzaileak.

Gaur egun, Antzita eremuak Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta horren Babes Zortasuneko Eremua zati batean hartzen ditu, Urumeako lehentasunezko fluxu-eremuan sartzen da eta uholde-arriskua du 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen ondorioz.

Uholde-arriskua dela eta, aplikatzekoa da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren I. eranskineko 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoa. Era berean, aplikatzekoa da EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) E.2 apartatua.

Uholdea izateko arrisku handiagatik, eta Plan Hidrologikoan jasotakoari erreparatuta, Planean Antzita eremuan aurreikusitako erabilerak eta garapenak gauzatzeko gorabehera handiak egon daitezke.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren erantzuna jaso dugu.

Jarraian laburbiltzen da zein diren ingurumen-alderdi garrantzitsuenak izapide honetan jasotako txostenetan: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta:

Natura-ondareari dagokionez, ingurumen-azterlan estrategikoak behar bezala aztertu beharko ditu alderdi hauek:

- "AO.12 Erregenea" Espazio Libreen Sistema Orokorreansartuko den 830 m²-ko eremua, gaur egun baso natural gazte batek okupatzen baitu. Ziurtatu behar da Espazio Libreari dagokion hirigintza-araudiak masa hori ziur babestuko dela.
- Erregenea osoa hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) berezko banaketa-eremuan dago. Galtzeko arriskuan dagoen espezie horrek kudeaketa-plan bat du Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak horri buruz xedatuta daukana beteko da.
- Harizti/baso mistoko orbanak eta Urumea ibaiaren ertza espazio libre gisa integratzea "MA01 Antzita" eremuan, lehenak babesteko eta ibaiertzeko basoa lehengoratzeko.
- Antzitan flora inbaditzailea dagoenez, beharrezko irizten diogu ingurumen-azterketa estrategikoak hura kontrolatzeko eta desagerrarazteko protokolo bat txertatzea.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Eragindako eremuaren barruan ez da kultura-ondarean eraginik hautematen.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien zehaztapen eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak

4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeintzuk dakarten ingurumenean efektu kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearrekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gaineratik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren edo ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gaineratik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira. Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde-Plan Partziala (Donostialdea-Bidasoa Beherea)
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027 bigarren plangintza-zikloko UAKPren aurreikuspenak ere kontuan hartuta, gaur egun izapidetzen ari dena).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Itsasbaterreko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) Kudeaketa Plana onetsi eta espezie hori babesteko arau osagarriak xedatzen dituen 1999ko azaroaren 10eko Foru Agindua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenaren ondorio kaltegarri nabarmenak izateko arriskua badakarte, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Horri dagokionez, behar adina xehetasun-mailarekin deskribatuko da Planak azkenean onartutako garapen-alternatiba, eta hartutako hirigintza-konponbidea ere justifikatu egin beharko da.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren planen, proiektuen eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenaren eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusi egingo da garapen-baliabide eta/edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren eraginpean jarriko direla hala badagokio.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuetan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, bai eta Planaren barnean ingurumen-ondorio nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba -esku ez hartzeko alternatiba- ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuetan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuetan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren egoera —alderdi nagusiak azalduta— Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren gaur egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena (Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak pairatzeko arriskuan diren guneak bakarrik hartuta).

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, arriskupeko fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Horri dagokionez, aukeratutako garapen-alternatibak zer landarediri eragingo dion deskribatu beharko da, bereziki tokiko zuhaitz-masak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Landaredi mota bakoitzerako, honako hauek zehaztuko dira: azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik interesgarri den elementurik baden aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarriak eta jarduera kutsagarriak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena. Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babes kulturandotasunari.

f. Apartatu honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, eta abar), jendearen bizileku diren guneak -halakorik bada-, ukituta gerta daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren gaur egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku nagusiak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita Planak uki ditzakeen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik agian arazotsuak diren eremuak atzeman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo urrakorrak eta abar ebaluatzen. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu honetan, Planak planteatzen dituen jardueren garapena baldintza dezaketen alderdi nagusiak honako hauek dira: itsaso-lehorreko jabari publikoaren eta haren babes-zortasunaren babes, uholde-arriskua, kutsatutako lurzoruen kudeaketa, kalitate akustikoa eta intereseko landaretza edo fauna badagoen. Alderdi horiek guztiak aztertuko dira Azterlanean.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer interakzio dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta haien eragina jasateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: bigarren mailako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketan 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketan berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehatu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriarengan, giza osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako Planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Urumea ibaiari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuari eragin dakiokeen ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua).
- Horrez gain, aztertuko da bateragarria ote den honako plan hau Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 Planean (kontuan hartuta, halaber, 2022-2027 bigarren plangintza-zikloko UAKPan aurreikusitakoa, zeina izapidetze prozesuan baita) Urumea 2 eremuko ES017-GIP-URU-01 UAHERako aurreikusitakoarekin.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritakoak; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten diren.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredian dituen ondorioen ezaugarriak zehatu eta baloratuko dira; bereziki hostotsuen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak.

- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa). Hala badagokio, kontuan hartu beharko da 42. artikuluan etorkizuneko hirigintza-garapeneko bibrazioen ebaluazioari buruz ezarrita dagoena. Era berean, gogorarazi behar dugu, arau honen 43. artikulua arabera, ezin izango dela etxebizitzetarako, ospitaleetarako, hezkuntzarako edo kulturarako eraikinak eraikitzeke lizentziarik eman, baldin eta, lizentzia emateko unean, kanpoan kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez badira, artikulua horretan jasotako salbuespenetan izan ezik.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efektuen handitasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean izan daitezkeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - . Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - . Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzea eragin dezakeenik.
 - . Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatu dira, horretarako Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, orobat, saiaturiko da lotzen plan edo programaren gerta litezkeen faseekin.

d. Adieraziko da hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketako 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ingurune hidrikoa babesteko neurriak: Antzita eremuan Urumea ibaiaren presentzia kontuan hartuta, lur gaineko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko neurriak proposatuko dira obra-fasean.
- Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera

garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeekin, positiboa).

- Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren gunee libreetako eremuak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta. Ihobek argitaratutako "Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzen eskuliburua" hartuko da aintzat.
- Identifikatutako flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatu egingo dira, eta eremuan eta inguruan zabaltzea saihesteko neurri egokiak hartuko dira. Protokolo bat ezarri beharko da Antzita eremuan dauden flora exotiko inbaditzaileko espezieak (*Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Baccharis halimifolia*, *Spartina patens*, *Robinia pseudoacacia* eta *Fallopia japonica*) kontrolatzeko eta desagerrarazteko.
- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko zaintza-eremuko erabileren mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua), bai eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planaren araudia ere (E.2 atala).
- Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta. Horrez gainera, zuzenketa-neurriak ezarriko dira, behar izanez gero, bibrazioei aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak lortzeko.
- Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterlan estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat egingo du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzen efektuak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusitako eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere bai.
- Aztertzea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsazioarako neurriei jarraiki beharko diete.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak eragindako administrazioei eta interesdunei kontsulta egin beharko die, jendaurreko informazioarekin batera.

Organo sustatzaileak kontsulta egin beharko die, gutxienez, eraginpeko administrazio publikoei eta ingurumen-organoak irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu dituen pertsona interesdunei. Honako hauek izan dira:

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Gipuzkoako Osasun Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Ihobe.
- ADIFeko Zuzendaritza Nagusia.
- Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa)

- Kudeaketa eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Saila.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko Mendietako eta Landa Inguruneko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Eguzkizaleak Elkartea (Eguzki).
- Ekologistak Martxan

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. Donostiako Udalari ebazpen honen berri ematea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 15.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria
Javier Aguirre Orcajo.